



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko maiatzaren 29an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN
DANIEL OYARZABAL LARRABURU

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezeko idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko apirilaren 24ko ohiko batzarreko aktan, maiatzaren 2ko urgentziazko eta aparteko aktan, eta maiatzaren 4ko aparteko aktan, ia norbaitek aldatetaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez aktak onartzea erabaki du.

2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

GASTUAK

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

1	ZAPIRAIN LAGO S.L. Apirila, maiatza eta ekaineko mantenimentua	484,87 €
2	FERNANDO GOIA. Zezenetako abeltzainarekin egindako afariko gastua	18,20 €
	XIMON HARATEGIA. Zezenetako abeltzainarekin egindako afariko	
3	erosketak	35,26 €
4	ARANTXA JANARIDENDA. Apirilaren 21eko auzolaneko hamaikatakoa	12,47 €
5	DINDAIA. Goxali ludotekaren apirileko kudeaketa	729,72 €
6	CAMPOS GARBI. Xagu eta arratzen pozoiz zakuak	184,22 €
7	MLARRAMENDI. Patziku Perurenaren, Leitzalarreko unaiak, liburuak	200,00 €
8	CORREOS. Korreo gastua, martxokoa	111,28 €
9	BPX PORT. Jumfit eta pilates saioak: apirila 2018	1.256,56 €
1	ELENA GARCIA CAMPO. Rotuladoreak, sobre txuriak	8,88 €



0		
1		
1	LYRECO. Bulego materiala	234,15 €
1		
2	KOPY LEKU. Fotokopiadoraren mantenimentua	209,61 €
1		
3	ADARRA. Panel informatiboak jartzeko polyesterra	7,91 €
1		
4	SOBRIC. Menbretedun sobreak	102,57 €
1		
5	MIGUEL ANGEL LACAMBRA. Motozerrantzat olioia	35,25 €
1		
6	PILI APEZETXEA. Udalako loreak	18,00 €
1		
7	BIG MAT MENDITXURI. Panelentzat torniluak, botak.	57,22 €
1		
8	CORREOS. Korreo gastua, apirilakoa	96,67 €
1		
9	ANSA JANARIDENDA. Aterpeko garbiketa produktuak	26,96 €
2		
0	ANSA JANARIDENDA. Suhiltzaileen lokaleko komoneko papera	2,98 €
2		
1	FEELING R.D. WEAR, S.L. Goizutraileko parte hartzaileentzat galtzerdiak	627,99 €
2		
2	IKASFIT. Jumpfiteko trampolinen maiatzako alokairua	314,60 €
2		
3	MARIA JESUS ANSA. Suhiltzaileentzat leja	2,10 €
2		
4	GESERLOCAL. 1. hiruhilabeteko bilketa ejekutiboa	264,89 €
2		
5	GESERLOCAL. Apirilako kontabilitate aholkularitza	266,95 €
2		
6	ANIMSA. CSR zerbitzuaren 2. hiruhilabetekoa	1.003,21 €
2		
7	CORREOS. Apirilako korreo gastua	96,67 €
2		
8	MENDITXURI. Laneko arropak (Xabier) eta udalako kola eta sikaflexa	125,69 €

Ordaindu beharreko gastuak: 6.534,88€

Gastu helbideratuak

1	BIDANE HUICI ANTON. Xalto eskolaren garbiketa lanak, apirilakoa	1.576,12 €
2	MARISOL APEZETXEA. Udal eraikinen garbiketa lanak, apirilaren 10tik	747,09 €



	30era	
3	OIHANA INSAUSTI. Eskulanak ikastaroaren martxoko faktura.	356,25 €
4	ORTIZ DE ELGUEA. Apirilako faktura	176,60 €
5	ORONA. Eskolako igogailuaren 2. hiruhilabetekoa	311,96 €
6	GOIZUKOOP. Udalako Land Roverraren gasoila	64,01 €
7	GOIZUKOOP. Suhiltzaileen ibilgailuen gasoila	130,22 €
8	IMQ Prevención. Osasunaren zaintza, 2018koa	447,85 €
9	GAS NATURAL REDES. Medikun etxe zaharreko gasa	34,91 €
1		
0	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Suhiltzaileen lokaleko zabor tasa	41,60 €
1		
1	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Medikun etxe zaharrako zabor tasa	41,60 €
1		
2	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Santa Maria lokaleko zabor tasa	41,60 €
1		
3	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Udalako zabor tasa	58,52 €
1		
4	MENDIALDEA MANKOMUNITATEA. Eskolako zabor tasa	151,85 €
1		
5	AELVASA. Argiteri publikorako materiala	38,65 €
1		
6	TUV RHEILAND. NA-7243-AP ibilgailuaren ITVa	45,75 €
1		
7	GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA. 1. ekarpena	8.305,97 €
1		
8	GOIZUTRIL. Irabazleentzat sariak	650,00 €
1		
9	BERRO BIDE. Retroexkabadoraren erosketa	38.000,05 €
2		
0	MARISOL APEZETXEA. Aterpeko garbiketa lanak	54,45 €
2		
1	GIZARTE SEGURANTZA. Martxoko gizarte segurantza	3.424,85 €
2		
2	GOIENER. 2018/04/19tik 2018/05/23ra	2.227,26 €
2		
3	VODAFONE. 2018/04/19tik 2018/05/23ra	814,61 €
2		
4	MOVISTAR. 2018/04/15tik 2018/05/23ra	676,36 €

Helbideratutako gastuak: 58.418,13 €

Gastuak guztira: 64.953,01€

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea eta helbideratuak



onartzea erabaki du aho batez

Ondoren, Alkateak, diru sarreren berri eman du

DIRUSARRERAK

1	ERRENTAK. Udal eraikinen errenta, maiatzakoa	225,49 €
2	ZERGADUNAK. Ibilgailuen gaineko zerga. Helbideratu gabeak	1.235,84 €
3	ZERGADUNAK. Frontoiako fitxak	15,00 €
4	ZERGADUNAK. Gimnasioko kuota. Helbideratu gabeak	25,00 €
5	ZERGADUNAK. PAC ziurtagiriak	1.381,80 €
6	BIDANE HUIZI. Kontserjearen etxeko argi indarra	45,10 €
7	NAFARROAKO GOBERNUA. Estatuko tributoak 1. hiruhilabetekoa	161,04 €
8	ZENBAITZUK. Goizueta etxeen salmenta	175,00 €
9	NUKF. Goiener 1. Hiruhilabetea	49,96 €
1		
0	NUKF. Acciona Energia 1. Hiruhilabetea	0,03 €
1		
1	NUKF. Iberdrola 1. Hiruhilabetea	1.058,49 €
1		
2	NUKF. Endesa 1. hiruhilabetea	21,15 €
1		
3	NUKF. Gas Natural 1. hiruhilabetea	13,78 €
1		
4	IRAITZ OLASAGASTI. Landare salmenta, apirilakoa	6,00 €
1		
5	ZUBIMUXU. Abenduko egonaldiak: Obramas, Viacron	648,00 €
1		
6	ZUBIMUXU. Martxoko egonaldiak, Obramas	398,00 €
1		
7	ZUBIMUXU. Apirilako egonaldiak	1.500,00 €

Guztira dirusarrerak: 6.959,68€

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez

3.-INFORMAZIOA

3.1.-KULTURA, KIROL ETA GAZTERIARKO DEPARTAMENTUA.

Lankidetzaren Hitzarmena sinatu da, Kultura, Kirol eta Gazteriaren Departamentua eta Goizueta eta Leitzako Udalen artean. Hitzarmen hau Iberoko erdi aroko dorrea eta burdiñola zaharraren ingurua zaharberritzeko eta balioa emateko hitzarmena da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.



3.2.-GOIENER.

Goienertik, 2018ko maiatzaren 21erako Batzar Nagusiko deialdia jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.3.-ETXEBIZITZA ZERBITZUA.

Nafarroako Gobernuaren alokairu poltsan dauden 5000 biztanle baino gutxiagoko udalerritako etxebizitzaen alokairua igo eta eguneratu egiten dela jakinarazi da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.4.-TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. Toki Azpiegituren Zerbitzua

Toki Azpiegituren Zerbitzutik, Zuzendari Nagusiaren 2018ko maiatzaren 21eko 250 Ebazpena jakinarazi da. Ebazpen honen bidez, Lergako Udalak tarteratu duen helegite kontentzioso administratiboan, interesatu moduan dagokion enplazamendua egin zaio Goizuteako Udalari, zazpi eguneko. Toki Azpiegitura Planaren barnean, argiteri publikoko obrak behin betikoz onartzen dituen Ebazpenaren aurka tarteratutako helegitea da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.5.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Lurralde eta Paisaia Zerbitzua.

Bilera dialdia egin zen maiatzaren 24rako, Elizondon eta maiatzaren 26rako Irurtzunen, Nafarroako Paisairako Estrategia zehazteko beharrezkoak diren aurre lanak lantzeko.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.6.-NILSA

Nilsatik bilera dialdia egin zen maiatzaren 25erako, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan zuzentzailearen bukaerako itzulera bilera.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.7.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA.

Ingurumen hezkuntzarako eta boluntariotzari laguntzako programaren barnean, bi jardunaldi antolatu direla jakinarazi da, bat, "Leringo Pinudiak" eta bigarrena, Harkaiztietako hegaztiak eta Nafarroako arroiletako dibertsitatea". Maiatzaren 26ean eta ekainaren 2an egingo direnak, hurrenez hurren.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

3.8.-CEDERNA GARALUR

Cederna Garalur Elkarteko órgano erabakitzailearen maiatzaren 8ko 1 ebazpenaren bidez, Goizuetako Udalak, 2014-2020 Tokiko Garapen Parte hartzaileko Estrategiaren programa barnean eskatu dituen hiru diru-laguntza ebatzi dira:

-Tifanitxo Eraikiaren Egokitze Proiektuaren gaineko diru-laguntza, ezeztu egin da,



Goizuetako Udalak, ez duelako eskatu bezela egiaztatu eraikiaren jabetza edo ta erabilera eskubidea

-Madalena Olatxo Zubia, oinezkoen bidezidorra proiektuaren gaineko diru-laguntza ezeztu egin da, Goizuetako Udalak, ez duelako eskatu bezela egiaztatu bideak ukitzen dituen partikularren baimena baduela.

-Goizuetatik Artikutzarako bidea egokitzeko proiektuaren gainean, 50.000€tako diru-laguntza onartu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.9.-LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO, BARNE ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA. Giza Baliabideen eta Baliabide Materialen Kudeaketarako Zerbitzua.

Justiziako Zuzendari Nagusiaren 2018ko maiatzaren 4ko 105 zenbakidun Ebazpen bidez, 2018ko diru-laguntzak onartzen dira, Bake epaitegien funtzionamendu gastuak finantziatzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.10.-NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSITUTUA.

Maiatzaren 17an, LGTBIfobiaren Nazioarteko Eguna izanik, Nafarroako Berdintsaunerako Institutuko Zuzendariaren gutun bat jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.11.-KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIAREN DEPARTAMENTUA. Ondare Arkitektonikoaren Atala.

Ondare Arkitektonikoaren Atalak aldeko txostena egin du, Herriko Etxean, ezkerrean, beheko orapetik goiko ganbara bitartean igogailua jartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.12.-NAFARROAKO ARTXIBEROEN ELKARTEA

Nafarroako Artxiberoen Elkartetik, Administrazio Eletronikoa dela eta, artxibu elektronikoak nola egituratu behar diren irizpideen berri jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.13.-NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA SA

LIFE IREKIBAI proiektuaren parte-hartze prozesuko Lan Taldeko bilera deialdia egin zen maiatzaren 23an, Bertizko Jauregian.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.14.-HAUTESKUNDE JUNTA ZENTRALA.

Hauteskundeko Junta Zentraletik jakinarazi da, Zuriñe Lujambio Zabalaren dimisioa ondoren eta zerrendetan zeuden hiru ordezkoei karguari uko egin diotenez, ze pauso eman behar diren bakantea betetzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.



3.15.-NAFARROAKO JUSTIZI AUZITEGI NAGUSIA.

Goizuetako Udalari jakinarazi zaio, Iñaki Etxeberria Aranz, izendatu dela Goizuetako Bake Epaiile titular, eta apirilaren 17ko NAO-an argitaratu dela izendapena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.16.-LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO, BARNE ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA

HeliNET Proiektuari buruzko informazio bilera deialdia jaso zen maiatzaren 25erako. Proiektu hau mugaz gaindiko larrialdien kudeaketa hobetzeko helburua duen egitasmoa da.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.17.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA.

NUKF-tik honako dokumentazioa jaso da:

-Nafarroako Kontratuen Foru Lege berriak, lan hitzarmenei kolektuboen erregistroari buruz arautzen duena.

-Maiatzaren 8ko Batzorde Betearazleko akta

-Maiatzaren 22an ospatu zen "Haurtzaroa eta Hiria" hitzaldiaren deialdia.

-2018ko Udalerrien kuota, Goizuetako kasuan, 245,79€takoa.

-Toki Administrazioak Federaziora helarazi duen Nafarroako Toki Administrazio Berrantolatze Foru Legearen aurreproiektua.

-Jakin nahi da Ekintzaile autonomoei alokatzeko, Higiezin berekiak, libreak eta hutsak badituen udalak, datu base bat egiteko

-Lan talde bat jarri dela martxan, NUKF-ren barnean, imnatrikulatutako ondarea berreskuratze, udal batzuen ordezkariak eskatuta. Interesko bada, maiatzaren 4rako jakinarazi behar da.

-Tokiko Esparruan herritarren parte hartzearen gainan, 4 gida egin direla. Gida hauek zintzilikatuak dauden estekaren berri eman da.

3.18.-KANTAUURIKO UR KONFEDARAZIOA

Kantauriko Ur Konfederazitik dokumentazio hau jaso da:

-Acciona Energia SAU-ri eman zaio baimena, kanala garbitu eta zuhaitzak mozteko.

-Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriaren Departamentuak, Iberoko zubia birgaitzeko egin duen eskaerari sarrea eman zaiola

-Nedgia Navarra SA-k Goizuetako gas instalazioaren modifikazioak egiteko egin duen eskaerari sarrera eman zaiola.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.



4.-ESKAERAK

4.1.JOSEBA ELICEGUI ECEIZA. Ixkibiko BBT egiteko baliabide eskaera

Joseba Elicegui Eceiza Jaunak, Ixkibi Kanpinaren kudeatzailea Goizuetako Udalera zuzendu da adieraziz, datorren ekainaren 3an, mendiko bizikleta zeharkaldi bat antolatu nahi dutela, eta egun horretako, Udaleko Land Rover-a, anbulantziaren zerbitzua, suhitzailen zerbitzua eta megafonia eskatu ditu.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du:

1.Udaleko Land Rover-a eta anbulantzia Ixkibi Kanpinaren kudeatzailearen esku jartzea, beti ere. Anbulantziari dagokionean, bestelako premiazko behar bat sortu ezkerro herrian, sortutako premiak lehentasuna izango duelarik. Udaleko Land Rover-ari dagokionean, larunbat horretan auzolana deitua dagoenez, ohartarazten da, agian, udalak Land Rover-a auzolanerako beharko duela.

Megafoniari dagokionean, musika ekipoa erabiltzeko baimena ematea. Musika ekipoa ekitaldi aurretik udalean jaso beharko da, eta erabili ondoren Goizuetako Udalera bueltatu beharko da

2.Ibilgailuen gidaria, Udaleko Land Rover-aren kasuan, udalaleko zinegotzia den Josu Garmendia edo ta udal langile bat beharko du izan, eta suhitzailen ibilgailuen kasuan, gidariak dagokion gidatzeko baimena izan beharko du. Suhitzailak bolondresak direnez, udalak ezin du bermatu suhitzaille bolondresak eskatzen den zerbitzua emando dutenik.Mendi zeharkaldiaren antolatzailea arduratu beharko du suhitzaille bolondresekin zerbitzua adostez.

3.Bai utzitako ibilgailuekin eta bai bizikleta ibilbidearekin lotutako edozein ezbehar antolatzaileen erantzukizunekoak izango da, baita partehartzaileek bete behar dituzten betebeharrak konpliaraztea ere.

4.2.-LEIRE MUTUBERRIA. Idoitako badena jartzeko eskaera

Leire Mutuberria, Goizuetako Udalera zuzendu da adieraziz, Idoitan ondatua dagoela eta berria jartzeko eskatu du, eta bide batez zebra bideaa ere; ahal bada badena eta zebra bidea dena batean, Ereñotzun bezela.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du jakinaraztea,Idoitan lehendik dagoen badena konpondu duela eta plazatik gora daudenak konponduko dituela.

Zebrabidedun badenari dagokionean, udalbatzak aho batez deuzestea erabaki du, funtzio berdina betetzen duten badenak jarrita daudelako; dena den, NA-4150 errepidea Nafar Gobernuaren eskumenekoa denez, udalak eskatuko dio Idoitako eremu horretan zebrabidea margotu dezan.

4.3.-ANDONI ZULOAGA GARBIZU. Eskultura bat egiteko baimen eskaera

Andonio Zuloaga Garbizu Goizuetako Udalera zuzendu da adieraziz, monolito edo



eskultura bat egin nahi duela, dispertsioarengatik hildako eta gatazka honetagatik eroritako guztiei ohore. Horretarako udalari baimena eskatu dio, zine zaharreko atzekaldean, parking erabilera duen lursailan kokatzeko egin nahi duen eskultura.

EEskaera aztertutik, eta maiatzaren 21ean, Alkatea eskatzailearekin elkartu ondoren gai hau tratatzeko; ikusirik egun aparkaleku bezela erabiltzeko beharra dagoela, eta aurrera begira beste erabilera bat ere izan dezakela, udalak ez du egoki ikusten aipatutako eremua okupatzea, ondorioz, udalbatzak aho batez erabaki du, eskaera deuzestea.

4.4.ENERITZ LOYARTE ZUBIETA. Asinkoko bi pabeloi tarteko hondakinak kentzeko eskaera.

Eneritz Loyarte Zubieta, Goizuetako Udalera zuzendu da adieraziz, Juan Mari Loyarte Ondarrolaren fabrikako atarian (Axinkoko pabeloi tartean) txatarra eta baliorik ez duten hondakinak pilatzen direla, ingurua zikina dagoelarik. Aldi berean adierazten du, lehen hondakin hoiak, Olatxon pilatzen zirela eta orain berriz aipatutako fabrikaren aurrean. Hau dela eta, eskatzen du, fabrika aurrean dauden txatar eta bestelako hondakinak kintzea eta beste puntu bat bilatzea halako gauzak botzatzeko.

Udalbatzak eskara azertu ondoren aho batez erabaki du:

-Lehendakbizi eskerrak ematea gertakarien berri eman eta herriaren txukuntasunean interesa edukitzeagatik

-Azaldu Olatxon udalak ez duela sekula hondakin bolumenosoentzat lekurik egokitu, are gehiago, debekatua dagoela adierazten duena kartela jarri zuela

-Gaur egun Bekolandak pilatzen diren hondakinak herritarrak lekuz kanpo, eta Traperos de Emausek eskaintzen duen zerbitzua erabili gabe, edozein lekutan bidegabeki botatuko hondakinak direla, probisionalki jasotzen direnak Emausek eraman ditzan

-Mendialdea Mankomunitateak San Anton parajearen dagoen depuradoran garbigune bat jartzeko asmoa duela, hurrengo hilabeteetan burutuko dena eta horrek hondakin boluminosoen arazoari irtenbidea ematea espero duela Udalak

-Hori guztia kontuan hartuta, Bekolandako poligono inguruak garbituko dituela

4.5.MIRIAM AROZENA SAN MIGUEL. Ordainsaririk gabeko baimen eskaera.

Miriam Arozena San Miguelek, Goizuetako Udaleko Idazkari Kontuhartzaileak, 2014ko maiatzaren 14ko 39 Foru Dekretuak bere 2 artikuluan arautzen duen ordainsarik gabeko baimena eskatu du, hiru hilabetetarako, uztailea, abuztua eta iraila.

Goizuetako Udalak txostena eskatu dio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari. Txostenak honela dio hitzez hitz:



“Vista la solicitud de informe efectuada por el Alcalde del Ayuntamiento de Goizueta, en relación con la petición efectuada por la Secretaria municipal, tengo el honor de emitir el siguiente

INFORME

I.- OBJETO

Es objeto del presente informe analizar la solicitud realizada por la Secretaria del Ayuntamiento de Goizueta sobre concesión de permiso sin sueldo regulado en el Decreto Foral 39/2014, 14 de mayo, por el que se establecen medidas de reparto del empleo en las Administraciones Públicas de Navarra.

II.- ANTECEDENTES

De la documentación aportada por el Ayuntamiento de Goizueta para la elaboración del presente informe cabe destacar principalmente los siguientes hechos:

Primero.- En fecha 3 de julio de 2017, mediante Resolución de Alcaldía, se concede a la interesada permiso sin sueldo de tres meses (julio, agosto y septiembre), al amparo de lo establecido en el Decreto Foral 39/2014, de 14 de mayo, de medidas de reparto de empleo en las Administraciones Públicas de Navarra, concretamente en el artículo 2.

La concesión de este permiso propició la realización de una contratación temporal para la sustitución de la trabajadora por el porcentaje de jornada disminuido a la misma.

Segundo.- El 16 de febrero de 2018, la interesada solicita otro permiso sin sueldo de tres meses de duración (julio, agosto y septiembre), regulado en el artículo 2 del precitado cuerpo legal.

Esta nueva solicitud da lugar a la petición de informe a los Servicios Jurídicos de la FNMC por parte del Alcalde de la citada entidad local.

III.- CONSIDERACIONES JURÍDICAS

La interesada, empleada municipal del Ayuntamiento de Goizueta, solicita en 2018 nuevo permiso sin sueldo, previsto en el Decreto Foral 39/2014, para el periodo de los meses de julio, agosto y septiembre, por razones de conciliación familiar y laboral.

El permiso objeto del presente está regulado en el Decreto Foral 39/2014, de 14 de mayo, de medidas para el reparto del empleo en las Administraciones Públicas de Navarra. Esta normativa nació con el objeto de paliar los efectos negativos de la crisis económica con el fin de propiciar en el sector público la contratación temporal de personal mediante la adopción de fórmulas para que el personal pudiese de forma voluntaria reducir su jornada de trabajo. En concreto, estas fórmulas son el permiso sin sueldo y el permiso parcialmente retribuido.

El reseñado artículo 2 establece el régimen del permiso sin sueldo en los siguientes términos:

“A) Su duración será de tres o de seis meses dentro del periodo de un año, a contar desde su concesión.

B) Se podrá acoger al mismo el personal funcionario y estatutario. Asimismo, también lo podrá solicitar el personal contratado en régimen administrativo que esté ocupando una vacante o una plaza reservada, siempre que su relación de servicio tenga una duración prevista de al menos un año.

C) En función de la duración del permiso, el empleado percibirá de forma regular durante todo el



año el 75 o el 50 por 100 de sus retribuciones, a excepción de las variables, con independencia del periodo de disfrute del permiso. A solicitud del empleado, podrá percibir sus retribuciones en estricta correspondencia con su periodo de prestación de servicios.

D) Se mantendrán las cotizaciones sociales.

E) El periodo de disfrute del permiso se acordará en cada caso con carácter previo entre el empleado y el órgano competente para su concesión, en función de las necesidades del servicio, y será continuado.

(...)"

Este tipo de permiso sin sueldo goza de unas características específicas y requisitos que lo diferencian de otros permisos a los que puede tener derecho el trabajador, como por ejemplo la licencia no retribuida prevista en el artículo 14 del Reglamento de vacaciones, permisos y licencias del personal funcionario de las Administraciones Públicas de Navarra.

En relación con el permiso solicitado cabe señalar que toda vez que el trabajador cumpla con los requisitos establecidos en el Decreto Foral 39/2014, de 14 de mayo, podría beneficiarse de esta medida. No obstante, este permiso sin sueldo está sujeto al régimen jurídico establecido en dicho cuerpo legal, en particular, a lo dispuesto en los artículos 2 y 4; y, especialmente, al cumplimiento de su premisa máxima que no es otra que la realización necesaria por parte de la entidad local de una nueva contratación temporal de personal que haya de sustituir al trabajador que se acoge a dicho permiso.

De la documentación aportada por el Ayuntamiento para la emisión de este informe consta que a la trabajadora ya se le concedió este permiso en 2017, también para un periodo de tres meses. En este sentido, la propia normativa reguladora de esta medida prevé la posibilidad de renovación por el órgano competente siempre que se cumplan los requisitos exigidos por la norma durante el nuevo periodo y siempre que sea solicitado por el trabajador.

Existe una cuestión previa fundamental para la aplicación de este Decreto Foral por parte de las entidades locales y es la siguiente: su aplicación no es directa. El artículo 1.2 establece que "*Respecto de las entidades locales, la aplicación de las medidas recogidas en este Decreto Foral será potestativa. En el supuesto de que decidan aplicarlas, se sujetarán al régimen y a las condiciones contenidas en el mismo*". Por tanto, para que pueda ser de aplicación por parte de las entidades locales, es necesario que el Ayuntamiento se adhiera o vincule potestativamente a dicho Decreto Foral mediante la adopción del correspondiente acuerdo.

Por tanto, si la entidad local ha acordado la aplicación del Decreto Foral y por parte de la interesada se cumplen todos los requisitos establecidos en dicha normativa, procedería la concesión del permiso solicitado que necesariamente deberá propiciar la realización de una nueva contratación temporal para sustituir a la empleada beneficiaria del mismo.

Este es el criterio de quien suscribe este informe, sometido, como siempre, a cualquier otro mejor versado en Derecho.

En Iruña-Pamplona, a 4 de abril de 2018.

Fdo.: María Asunción Nieto Zabala
Servicios Jurídicos FNMC"

Udalak herriaren garapenerako estrategikotzat jotzen dituen proiektuak dituela eskuartean, zeinetan beharrezkoa ikusten duen hauen espedienteak aurrez ezagutzen dituen idazkari-kontuhartzaileak eramatea. Gainera espediente hauek denbora tarte laburrean egin behar direla



(esaterako Bidegorria egiteko desjabetze espedientea, 2018ko Cederna-Garalurren PDR dirulaguntzara aurkeztu ahal izateko).

Joan den urtean ezaugarri bereko 3 hilabeteko soldatarik gabeko baimena eman zitzaiola idazkari-kontuhartzaileari eta Udala jabetu zela idazkari-kontuhartzaile ordezkariak espedienteak ezagutzeko denborarik ez zuela izan, Udal dinamika mantsotuz, ondorioz.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren eta aurretiaz egindako azalpenen baitan, aho batez erabaki du lan antolakuntza beharrak direla eta eskaera ezeztea.

5.- BAKE EPAILE ORDEZKARIAREN HAUTAKETA

2018ko martxoaren 2an Nafarroako Aldizkari Ofizialean ordezeko Bake Epaile plazaren iragarkia argitaratu zen. Udaleko iragarki taulan jendaurreko erakustaldian egon ondoren, 2018ko martxoren 23an instantziak aurkezteko epea amaitu zen, eta Idazkaritzatik adierazten da ez dela inor aurkeztu ordezeko bake epailearen postua betetzeko

Udalbatzak jakinaren gainean gelditzen da, eta Nafarroako Auzitegi Nagusira jakinaraztea erabaki du.

6.- GOIZUETAKO KOMUNALEKO PARAJE EZBERDINETAN MENDI USTIAPENA SUBASTA BIDEZ ESLEITZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA TEKNIKOEN ONARPENA ETA PROZEDURA HASIERA. 2016 ETA 2017 MENDI PLANAK

Goizueta Udalak, behar bezala baimendurik, plegu itxien bidezko enkante publikoa egingen du honako ohian aprobetxamendu hau saltzeko:

Lote Bakarra:

Ixkibii eta besteak parajeetan, 5.382 ale, espezie desberdinetakoak, 3.829,82 metro kubiko egiten dutenak. PEFC eta FSC ohian ziurtagiria duena. Mozketa modua: Entrasaka eta matarrasa.

Tantailepo, Okillegi, Epeleko Txokoa, Gaintzin parajeetan, 3.315 ale, espezie desberdinetakoak, 2.832,68 metro kubiko egiten dutenak. PEFC eta FSC ziurtagiria duena. Mozketa modua: Entrasaka eta matarrasa

Udalbatzak aho batez erabaki du, baldintza tekniko eta ekonomiko administratibo partikularren plegua onartzea, eta dagokion prozedurari hasiera ematea.

7.- “GOIZUETAKO HERRIKO ETXEAREN IRISGARRITASUNA EGOKITZEKO”



PROIEKTUAREN ONARPENA ETA OBRAREN FINANTZIAZIO PLANAREN ONARPENA

7.-Proyecto de Adecuación para Accesibilidad de la Casa Consistorial de Goizueta. Aprobación del proyecto y del plan financiero de la obra

El Ayuntamiento de Goizueta ha solicitado al Servicio de Infraestructuras Locales del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, la inclusión de la obra “Adecuación de Accesibilidad del Edificio Consistorial” en el Plan de Inversiones Locales 2017/2019.

Mediante Resolución 413/2017 de 16 de octubre, del Director General de Administración Local, se aprueba la relación definitiva de inversiones susceptibles de ser incluidas en el Plan de Inversiones Locales 2017/2019, dentro del apartado de -Adecuación de dotaciones municipales a la normativa técnica de la edificación-.

La obra de accesibilidad del edificio consistorial, ha sido incluida definitivamente, como inversión financiable, a ejecutar en el año 2019.

Según lo dispuesto en la base 5ª de la Resolución 413/2017, las entidades locales incluidas en la relación de inversiones financiables con cargo a las disponibilidades presupuestarias previstas para el 2018, deberán presentar, dentro del primer trimestre de 2018, la documentación señalada en el nº 4 del anexo IV de la Ley Foral 18/2016, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017/2019.

Dicho plazo ha sido modificado, en la disposición adicional segunda de la Ley Foral de Presupuestos Generales de Navarra para el año 2018, estableciendo nuevo plazo de presentación de la documentación señalada en el nº 4 del anexo IV de la Ley Foral 18/2018, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017/2019, finalizando este plazo el 31 de mayo de 2018.

Entre la documentación a presentar, hay que presentar el proyecto de ejecución. La arquitecta Idoia Legarreta Narbarte ha redactado El Proyecto de ejecución para la Accesibilidad de la Casa Consistorial de Goizueta. En dicho proyecto se ha incluido una modificación respecto a lo previsto en la memoria valorada presentada por este Ayuntamiento ante el Servicio de Infraestructuras Locales.

Esta modificación consiste en la colocación del ascensor desde la planta baja hasta la 3ª, en vez de instalar un ascensor desde la planta baja hasta la 2ª y seguir con una plataforma salvaescaleras desde la 2ª planta hasta la 3ª.

Con esta modificación se mejora la accesibilidad al edificio, dado que con una misma instalación se accede hasta la 3ª planta, accesibilidad mas adecuada y cómoda para los usuarios



De conformidad con lo dispuesto en el nº 4 del anexo IV de la Ley Foral 18/2016, la Corporación de Goizueta acuerda por unanimidad:

1.-Aprobar el Proyecto Básico y de Ejecución de Adecuación para la Accesibilidad de la Casa Consistorial de Goizueta , redactado por la arquitecta, Idoia Legarreta Narbarte.

2.-Aprobar el Plan de Financiero de la Obra de Adecuación para la Accesibilidad de la Casa Consistorial de Goizueta en los siguientes términos:

ENTIDAD LOCAL: GOIZUETA

OBRA: Obra de Adecuación para la Accesibilidad de la Casa Consistorial de Goizueta

INVERSIÓN

Importe obra IVA incluido:	109.168,12€
Importe honorarios IVA incluido:	7.139,00€
Importe TOTAL de la obra IVA incluido:	116.307,12€

FINANCIACIÓN

Aportación del PIL	67.285,11
Remanente de Tesoreria para gastos generales	49.022,01
TOTAL FINANCIACION	116.307,12

El Ayuntamiento de Goizueta no tiene deuda viva

Si el importe auxiliabile establecido por el servicio de infraestructuras fuera menor al importe previsto por la entidad local y por tanto la cantidad a financiar por ésta aumentara los recursos asignados a financiar este incremento se obtendrán de remanente de tesoreria

8.- 2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 03/2018. HASIERAKO ONARPENA

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaien garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 eta 44 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 eta 13 oinarrietan agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2017ko ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau



gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontuhartzailearen txostenean oinarritzen da:

2018ko urteko aurrekontuaren 03 aldaketa modu honetan egiten da

KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.

Miriam Arozena San Miguelek, Goizuetako Udaleko Ordezko Idazkari-kontuhartzailea naizen honek, 2/1.995, martxoaren 10eko, Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 270/1.998, irailaren 21eko, Foru Dekretuak, 2./1.995 Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaien garatzen duenak agintzen duenaren arabera, txosten hau egiten dut:

TXOSTENA

Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaien garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta 44 artikuluan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 eta 13 oinarrietan agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, sarrera bidez sortutako kreditua eta kreditu gehigarri bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea

2018ko urteko aurrekontuaren aldaketa modu honetan egiten da:

AURREKONTUAREN ALDAKETAK

* Sarrera bidez sortutako kreditua: Kontusaila. 1.4140.6190002 Goizuetatik Artikutzarako sarbidearen egokitzapen obra. Zenbatekoa: 50.000,00 €

Honela finantziatzen da:

Kontusaila: 1.7670001. E.D.L.P FEADER-GN en LEADER PDR 2014-2020 DIRULAGUNTZA. Zenbatekoa 50.000,00€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.4140.6190002 Goizuetatik Artikutzarako sarbidearen egokitzapen obra. Zenbatekoa: 64.418,88 €

Honela finantziatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 64.418,88€

Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:



- 1.-Udalbatzak behin behineko onarpena
 - 2.-Jendurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.
 - 3.-Erreklamazioak egongo balira, Udalbatzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.
 - 4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.
 - 5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da
 - 6.-Sarrera bidez sortutako kreditua, akordioa hartzen denean indarrean sartuko litzake, naiz eta argitaratu ere egin behar den.
- Beharrezko ondoriotarako,

Goizuetan, 2018ko maiatzaren 23an

IDAZKARIA.

Sin: Miriam Arozena San Miguel

9-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-039tik 059ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

39 zenbakia: Euskara Mankomunitatea, apirilaren 24an Ganbara erabiltzeko baimena

40 zenbakia: Berro Bide SL, makina eskabadora horniduraren esleipena

41 zenbakia: Iraitz Olasagasti, apirilaren 25etik uztailaren 25era, landare postua jartzeko baimena

42 zenbakia: Gazte Asanblada, maiatzaren 11n, Ganbara erabiltzeko baimena.

43 zenbakia: Mariana Lopez, Txinoko festatan, postua jartzeko baimena

44 zenbakia: Luis Inazio Lujanbio Etxeberria, 2017ko abenduaren 20ko alkatearen



ebazpenaren aurka tarteratutako berrezartze helegitearen ezeztapena

45 zenbakia: Tabernen ordutegiaren luzapena, Txino auzoko festatarako.

46 zenbakia: Javier Lujanbio Ansa , matarrasa egiteko hasierako izapidetza.

47 zenbakia: Donostiako udala , entresaka egiteko hasierako izapidetza

48 zenbakia: Felix Escudero Mariezcurrena , matarrasa eta entresaka egiteko hasierako izapidetza

49 zenbakia:Idoia Legarreta Na

rbarte. Igogailuaren proiektuaren idazketa egiteko epe luzapena, maiatzaren 28 arte.

50 zenbakia: Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatea, ganbara erabiltzeko baimena, maiatzaren 25ean, autodefentsa tailerra egiteko

51 zenbakia:Jane Ward, ganbara erabiltzeko baimena, ekainaren 30erako

52 zenbakia:Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatea, ganbara erabiltzeko baimena, ekainaren 1ean, Kattalingune hitzaldirako

53 zenbakia:Luis Miguel Apezetxea Lizaso, farmaziko sabaia berritu eta paretak margotzeko obra baimena

54 zenbakia: Sera fina Goizueta Ondarrola, farmaziko lurra berritzeko baimena

55 zenbakia: Soledad Apezetxea Salaberria, bordako teilatu berritze obrak bukatzeko bigarren epe luzapena.

56 zenbakia: Andoaingo Pilota Eskola, ekainaren 28tik uztailaren 1era, komonak eta duxtak erabiltzeko baimena

57 zenbakia:Aralar Musika Eskola, ekainaren 4ean eskolako musika gela erabiltzeko baimena.

58 zenbakia:Tabernen ordutegiaren luzapena, maiatzaren bigarren eta hirugarren asteburuko kintotako



59 zenbakia: Umore Ona Elkarteak, pilota gozoko txapelketa egiteko, pilota plaza erabiltzeko baimena.

Eguneko aztergaian zerrendatutako gaiak aztertu ondoren, eta erregu eta galdera txandara pasa aurretik, Udaltzako lehendakariak, Nafarroako Toki Administrazioako 6/90 Foru Legearen 81.2 artikuluan oinarrituta eta premiazko arrazoigatik, eguneko aztergaian aurreikusi gabe zegoen puntua Udaltzaren esku uzten du, honek hausnartu ditzan.

Udaltzaren hausnarketarako puntua hau da:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. PRESO POLITIKO SAHARARREN EGOERAK OKERRERA
EGIN IZANAK SORTZEN DUEN KEZKA LARRIA DELA ETA.**

Udaltzak, eguneko aztergaian sartu nahi den puntua aztertu ondoren, aho batez berretsi eta eguneko aztergai zerrendan sartzea onartu du

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. PRESO POLITIKO SAHARARREN EGOERAK OKERRERA
EGIN IZANAK SORTZEN DUEN KEZKA LARRIA DELA ETA**

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak aditzera eman digunez, guztiz kezkatuta daude preso politiko sahararren osasunak okerrera egun duelako; Mohamed Alayoubiren heriotzak egoera larriagotu zuen, gainera.

Aplikatzen zaizkien legez kontrako neurri gizagabeei amaiera emateko eskatzeko, hogeitau egunez mugarik gabeko gose greban egon ondoren, preso politiko sahararren osasun-egoera larriki egiten ari da okerrera. Horrek, dudarik ez da, ondorio iraunkorrek utziko ditu beren gorputz eta buru osasunean, haien osasuna nahiko ahula izanda lehenagotik ere, urteetan giltzapetuta egon baitira, isolamendu-baldintza ikaragarrietan.

Sahararren Ordezkaritzak salatu du okupazioko espetxe-agintariak preso politikoen giza eskubideak mespretxatzen dituztela: osasun-laguntza, elikadura egokia eta aldizka bisitak izatea, besteak beste. Beren zuzeneko senitartekoei egindako hertsapenak ere salatu dituzte.



Bereziki larria da GDEIM IZIKeko presoen egoera, 2013az geroztik zigor gogorretara kondenatuta haien artean, betiko kartzela-zigorak, Saharako herritarrek etengabeko bazterkeria iraunkorra jasaten dutelako protesta baketsua egiten ari ziren kanpamentua bortizki desegin zenetik, hain zuzen. Protesta horretan, giza eskubideak bete eta errespetatzeko ere eskatzen zuten, bai eta libre erabakitzeko eskubidea ere, Nazio Batuek emandako ebazpen ugariaren arabera saharar herriari dagokion eskubidea da eta.

Mendebaldeko Sahara, atzerriko okupazioaren azpiko Lurralde Ez Autonomoa, ez da "linbo juridiko" bat eta, hortaz, hango biztanleek, presoak barne, gizaki guztiek berezkoak dituzten eskubideak izan behar dituzte.

Horregatik guztiagatik, Goizuetako Udalak eta herriak berak giza eskubideekiko duten konpromisoa eta saharar herriarekin duten harremana kontuan hartuta, ..Goizuetako **Udalbatzak honako erakunde-adierazpena onartu du:**

ERAKUNDE ADIERAZPENA

- 1.-Goizuetako Udalbatzak bat egiten du preso politiko sahararren aldarrikapenarekin eta lehenbailehen libre uzteko eskatzen du.
- 2.- .Goizuetako Udalbatzak aipatutako gertaera salatzen du, bai eta Marokoko erakundeek saharar herritarren kontra aurrera eramane dituzten prozesu judizial guztiak eta epaiketa politikoak ere.
- 3.- Goizuetako.Udalbatzak dei egiten dio MINURSOri (Mendebaldeko Saharako Erreferenduma Egiteko Nazio Batuen Misioa, Marokok okupatutako lurraldeetan ordezkari duena) eta, batez ere, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren ordezkari berezi Horst Kohlere jaunari, presoek tratamenduari eta Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa betetzeari dagokionez nazioarteko legeria estu betetzen dela zaintzera.
- 4.-Goizuetako Udalbatzak salatzen ditu Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetan izaten den giza eskubideen urraketa etengabea eta preso politiko sahararrek Marokoko eta okupatutako Mendebaldeko Saharako kartzela guztietan bizi duten egoera.

10.-ESKARI ETA GALDERAK

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut